

Peio Ospitalek bere lehen bakarkako lana aurkeztuko du Igorren

Martxoaren 24an abestuko du Igorreko parrokian

Peio Ospital (1948-Itsasu) abeslari lapurtarrak Igorren abestuko du martxoaren 24an, ostiralean. Kantaldia, Arratiako parrokiek martian zehar antolatu duten egitarauko ekimenetako bat da eta Igorreko parrokian izango da arratsaldeko 19:30ean.

Emanaldi horretan Peiok bere lehen bakarkako lana aurkeztuko du, “*Arnasa... Hatsa... Bizia*” izenburua daramana. Berrogeita bost urtez Euskal Herri osoan plazaz plaza ibili den Peio eta Pantxoa bikote ospetsuaren uztarritik askatzeak lan pertsonalagoa egiteko aukera eskaintzen duela dio Ospitalek.

Peio Ospital, kantu konprometituen bidez, 60. hamarkadaren amaieran euskal kulturaren pizkundean parte hartu duten kantari eta intelektualen artekoa da. Hainbatek erresistentzia edota kontra-podereaz hitz egiten dute 60. hamarkada amaierako eta 70. hamarkada hasierako garaia aipatzeko.

Sasoia hura, 40 urteko ibilbidea eta 14 bat disko atzen utziz, bere lehen bakarko lanarekin dator orain Peio: “disko hau bihurgune bat da, aldaketa sakon bat. Norabide berri bat, bare-aldiaren beharrak eta hausnarketa irrikak sustaturik, azkenean funtsezkoenera itzultzeko: bizia”.

“*Arnasa... Hatsa... Bizia...*” dira 14 sorkuntzen hari nagusia, baita diskoaren izenburua. “Hau da bizidun oro tai gabe akuilatzen duen indarra”, dio kantariak berak, eta segitzen du: “Ez bila hemen galderei erantzunik. Soilik entzun Mañex Erdozaintzi-k aipatzen zuen “*Biziaren mugimendu dardara*”, edota Iratzeder-ek “*lurren pil pil gozoa*”, zuen baitan kurritzen eta kantatzen!”

Lan hau bideratzeko, laguntzaile paregabeak izan ditu: “bederatzi testu Andoni Salamero zumarragar olerkariarenak dira, hitzekin jolasteko duen trebetasun magikoa agertuz; testu bat Itxaro Bordarena, beste bat Joxe Arregirena. “Baxurko” (1890-1957) hondarrabiarrak 1937an jarritako bertso batzuk ere biltzen dira eta beste testu bat dago Martine Larroque xiberutarrarena, berak eta Pitzgarriko beste 6 kidek izenpetua. Azkenik, nik neuk egindako bertso batzuk”.

Musikari dagokionez, “Mixel Ducau izan dut laguntzaile estimatu paregabea; berak konposatu ditu zazpi doinu. Anton Valverde hiru. Andoni Salamerok bere bi testu musikatu ditu. Xabier Leteren doinu bat ere erabili dut, eta azkena herrikoia da. Gauzak soil eta sotil egin nahi izan ditugu, oinarri hirukoitza erabiliz: ahotsa, gitarra eta pianoa. Moldaketak Mixel Ducau eta Paul Smet flandiar adiskidearenak dira. Benetako elkarlan honek ematen dio disko osoari ezusteko kolorea, sorpresa goxo bat. Gonzalo Tejadak jarri du kontrabaxua, eta Iñaki Ospital nire semeak, egin ditu grabazio eta nahasketa lanak”.

Igorreko kantaldia izango da Hego Euskal Herrian Peiok egiten duen bere diskoaren bigarren aurkezpena, aurretik Donostian egingo du eta. Sarrerak Igorreko Gau-Lora kafetegian, Zeanuriko Jubilatuen tabernan eta Otxandioko Fonda tabernan dagoz salgai 10 eurotan aurretik erosten badira eta 12 eurotan egun berean.

